



# GENERALI EMPLEO EPSV

2025ko Abendua

## INBERTSIO-POLITIKA

Planear ekarpenak kapitalizatze berrak interes tekniko urtero aldatuko da. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerio Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritzak bizitza-aseguruak hornitzeko kalkulak egitean une oro zehazten duena izango da interes hori. 2025ko ekitaldian, % 0,53koa izango da interes hori, Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritzak 2025an finkatutakoari (%1,83) %1,30 kenduko baitaiz.

Arrisku-maila: Baxua.

### PLANAREN DATUAK

**Eraketa-data:** 2001eko abendua

**Modalitatea:** Enplegua

**Administrazio-gastuak:** 1,30%

**2025ko barne-bermea (garbia):** 0,53%

### ERAKUNDEAREN DATUAK

**Izena:** GENERALI Empleo, EPSV

**Base erregistroa:** 234-B

**Kontu-ikuskariak:** KPMG AUDITORES, S.L.

**Entitate gordailuzaina:** BNP PARIBAS SECURITIES SERVICES

**Erakunde kudeatzailea:** Generali España de Seguros y Reaseguros, S.A.

**Guztizko ondarea 31/12/2025:** 9.296.175,23 €

## ERRENTAGARRITASUN

### PLANAREN ERRENTAGARRITASUN (\*) HISTORIKOAK

Epealdia	% Metatua	UTB
12 hilabete	2,67%	2,67%
3 urte	9,01%	2,92%
5 urte	15,79%	2,98%
10 urte	37,92%	3,27%

### URTEKO ERRENTAGARRITASUNEN (\*) EBOLUZIOA

Epealdia	Urteko Errentagarritasuna
2016	3,76%
2017	3,53%
2018	3,77%
2019	3,43%
2020	3,31%
2021	3,04%
2022	3,09%
2023	2,99%
2024	3,09%
2025	2,67%

(\*) Iraganeko errentagarritasunek ez dituzte bermatzen ez zehazten etorkizuneko errentagarritasunak.

## ONDAREAREN OSAERA BALIO NAGUSIAK

### ONDAREAREN OSAERA



RF **91,23%**  
RV **0,00%**  
AM **8,77%**

EF eta MA ren iraupena: 4,30 años

### ONDAREAREN EBOLUZIOA

Data	Ondarea
31/12/2016	6.495.314 €
31/12/2017	6.920.062 €
31/12/2018	7.169.346 €
31/12/2019	7.454.252 €
31/12/2020	7.976.713 €
31/12/2021	8.524.236 €
31/12/2022	8.793.625 €
31/12/2023	9.064.142 €
31/12/2024	8.557.875 €
31/12/2025	9.296.175 €

### BALIO NAGUSIAK (\*\*)

**Renta Fija:** SPANISH GOVT 3.45 10/31/34, SPANISH GOVT 5.9 07/30/26, SPGB 0 1/2 04/30/30, SPGB 5 3/4 07/30/32, BELGIAN 3.1 06/22/35, KSA 2 07/09/39, REPHUN 0 1/2 11/18/30, BECTON DICKINSON 1.213 02/12/36, AP MOLLER 0 3/4 11/25/31, MCD 1 1/2 11/28/29, NTT FINANCE 3.678 07/16/33, BANCO SANTANDER 3 1/2 02/17/35, BPCE 3 1/2 01/25/28, BANQ FED CRD MUT 0 5/8 02/21/31, CAIXAB 0 7/8 10/28/27.

(\*\*) Bloomberg-en nomengiturara egokitutako deskribapena

## GERTAKARI GARRANTZITSUAK

2025eko urriaren 31tik aurrerako ondorioekin, BGAEren bazkide sustatzailea **GENERALI ESPAÑA DE SEGUROS Y REASEGUROS S.A. (A48037642 IFZ zenbakiaren jabea)** izeneko erakundea izango da. Erakunde horrek aurrekoa (GENERALI ESPAÑA, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS, A28007268 IFZ zenbakiaren jabea) xurgatu du, Madrilgo Ignacio Gil-Antuñano Vizcaino notario jaunak 2025eko urriaren 27an, bere protokoloa 5.204 zenbakiarekin, baimendutako eskritura publikoan formalizatutako bat-egitearen arabera.

Xurgatzearen bidezko bat-egitearen merkataritza-eragiketa honen ondorioz, GENERALI ESPAÑA DE SEGUROS Y REASEGUROS S.A. (Sozietate Xurgatzailea) subrogatu egin da legezko ondorio guztietarako, adierazitako datatik aurrera (2025eko urriak 31), BGAEaren bazkide sustatzaile izaeran, lehen GENERALI ESPAÑA, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS (suntsituta geratu den Sozietate xurgatua) sozietateak zituen baldintza berdinetan, eta eskubide eta betebeharrak berdinekin.

Aurretiaz aipatutakoaren ondorioz, jarraian, 2025eko abenduaren 16ko Ezohiko Batzar Nagusiak onartutako akordioak zehazten dira:

– Sozietate Estatutuen 1 eta 7.3 artikulua aldatzea. Sozietate Estatutuen Testu Bategin bat, onartutako aldaketak gaineratuko dituena, onartzea.

- Erakundeko Estatutuetako 1. artikulua, horrela idatzita geratzen dena hitzez hitz:

"1. artikulua - Eraketa, izena eta izaera juridikoa. Egun "GENERALI EMPLEO, ENTIDAD DE PREVISIÓN SOCIAL VOLUNTARIA" izena duen erakundea, zeinaren bazkide sustatzaile bakarra GENERALI ESPAÑA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. Merkataritza-sozietatea baita, enplegu-modalitateko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatea da, Estatutu hauen arabera arautua, eta horietan aurreikusten ez denerako, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateei buruzko Eusko Legebiltzarren otsailaren 23ko 5/2012 Legearen, aipatu legea garatzeko Erregelamendua onartzeko urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren, otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuaren, maiatzaren 29ko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen jarduera jakin batzuk arautzen dituen 92/2007 Dekretuaren, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate arloan hainbat dekretu aldatzeko otsailaren 13ko 13/2024 Dekretuaren, eta une bakoitzean aplikagarri diren gainerako arauen eta etorkizunean aurrekoak aldatu edota ordeztuko dituzten arauen arabera.

Erakundea Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen Erregistroan dago inskribatuta 234-B zenbakiarekin, eta berezko izaera juridikoa du, gaitasun juridiko eta jarduteko osoarekin, legezko xedapenetan eta Estatutu hauetan jasotzen direnetan ezartzen diren mugekin soilik".

- Erakundeko Estatutuetako 7.3. artikulua, horrela idatzita geratzen dena hitzez hitz:

"7. artikulua. Bazkide motak

7.3. Bazkide sustatzaile bakarra GENERALI ESPAÑA, DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. (egoitza soziala Madril (28020) duena, Manuel Gómez-Moreno plazako 5 zenbakian, A-48037642 zenbakiaren jabea, eta Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatua, M-377.257 orrian) da, eta hark eskatu zuen hertsiki eta formalizatu zuen B.G.A.E hau, eta berau mantentzen laguntzen du, bertako Mutualitate Funtsera hasieran egindako ekarpenarekin, gizarte-aurreikuspenaren bidez aurrezkia bultzatzeko xede bakarrarekin, eta Erakundearen funtzionamendu-araubidearen eta aplikagarri den araudian aurreikusitakoaren arabera, egin behar dituen beste ekarpen batzuen kalterik gabe.

Gobernu Batzordeak Batzar Nagusiari 2025eko azaroaren 28an Gobernu Batzordeak hartutako erabaki hauen berri ematen dio:

- Erakundea egituratzeko Gizarte Aurreikuspeneko bi Planetako Erregelamenduetako hurrengo artikulua hauek aldatzea. Horietako bakoitzaren testu bategin bat onartzea, onartutako aldaketak jaso eta gaineratzeko
  - o 21.2.2.B) artikulua aldatzea erabakitzen da, horrela idatzita geratzen dena hitzez hitz:  
"Bazkide Arruntak borondatezko ekarpenen sinadura formalizatu ahal izango du, aldez aurretik, Aurreikuspen Planeko Kide izatearen Ziurtagiri Indibiduala aurkeztuta Generali España de Seguros y Reaseguros, S.A. bazkide sustatzaileak duen edozein bulegotan, horien ordainketak banku-helbideratze bidez eginez".
  - o Erakundea egituratzeko gizarte-aurreikuspeneko bi planen erregelamenduetako "Datu Pertsonalen Tratamendu Informatizatuari" buruzko artikulua aldatzea adosten da.
- Inbertsio Printzipioen Adierazpena aldatzea Bazkide Sustatzaileari buruzko datuen eguneraketa adierazteko.
- Inplikazio Politika aldatzea Bazkide Sustatzaileari buruzko datuen eguneraketa adierazteko.

BGAE-en 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuko 50. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Bazkide Arruntak bere eskura ditu Planaren Erregelamendua eta Erakundearen Estatutuak, araudiaren arabera helarazteko gainerako informazioaz batera, Generali Seguros-en "www.generali.es" webgune publikoan.

Bazkide arruntak zerga arloko finantza-ziurtagiriak eskuratu ahal izango ditu alta emanez Mi Generali-ko <https://www.generali.es> helbidean edo Mi Generali-ren aplikazioa deskargatuz. Nahi baduzu, dokumentazio hau gure sukurtsaletako batean eskatu ahal izango duzu edonoiz, edo idatziz eskatu dezakezu dokumentazio hori banakako bidalketako idatzizko dokumentazio bidez bidaltzeko".